

# Antzerkia Igantziko eskolan

## HELBURU NAGUSIA

*Euskara izanik gure ingurune naturalean aho hizkuntzarik hedatuena, berau indar dezaketen hezkuntza materialak sortzea.*

## EKINTZAREN JUSTIFIKAZIOA

Egoera horietan sortzen diren askotariko testuinguru komunikatiboak eta halakoetan erabiltzen diren baliabideak aztertzea.

Ahozkoa lantzeko tresna egokia da antzerkia.

## HELBURUAK

Antzerkiak aztertzea eta antzezpena prestatzea.

Pertsonaiak irudikatzea.

Egoerak irudikatzea.

Intonazio egokia aukeratzea.

Ipuinean oinarritutako antzezlana egitea.



## EDUKIA ETA ESKOLAKO PLANGINTZA

### Kontzeptuzko edukiak

- Antzerkia eta narrazioa
- Agerraldia
- Elkarrizketa eta narrazioa
- Antzerkiaren egitura

### Prozedurazko edukiak

- Pertsonaien ezaugarriak, adjektibo, esamolde eta bertze baliabide batzuen bidez azaldu.
- Esamolde egokiak erabili, jarrerak, erreakzioak, sentimenduak... adierazteko.

### Jarrerazko edukiak

- Taldeko lanetan parte hartzeko arreta jartzea eta interesa izatea.
- Testuen mezua baloratzeko interesa erakustea.

## EKINTZAREN DESKRIPZIOA

|                           |  |
|---------------------------|--|
| Sekuentziazioa            | Eguberrien ondoren, gero hasi gidoia prestatzen eta entseatzeko. Emanaldia, berriz, inauterietan eskaini.                        |
| Irakaslearen esku hartzea | Prozesu osoaren ardatza da   |
| Ikasleen lana             | Batzuetan gidoia prestatzea (hirugarren zikloa) eta beti entseguak, dekoratuak, arropak prestatzea.                              |
| Ekintzak                  | Hizkuntza: gidoia<br>Plastika: dekoratuak (atrezkoa)<br>Entseguak<br>Emanaldi orokorra eskolan<br>Berako Kultur Etxean emanaldia |
| Baliabideak               | Antzerki testuak, ipuinak, irratia, arropak, antzokia.   |



## EKINTZAREN BALORAZIOA

Aspaldiko urteetan berdintsu egiten denez, finkatua dagoen ekintza da. Garai berdinean egiten da eta ikasle guztiak parte hartzen dute.

Emanaldi orokorrean gurasoek ikusle bezala parte hartzen dute.

## JARDUERA ESKOLAZ KANPO ZABALDU

Aurtengoan, Berako Lamixene Antzerki Taldeak gonbidatuta, Berako Kultur Etxera joanen gara maiatzaren 18an gure eskolako bi talde emanaldia antzeztera.

